

KULTUR LEHIAKETA

Lehiaketa honetan **Enkarterriko Lehen Hezkuntzako ikasleek** har dezakete parte. Ikasle bakoitzak bere zikloari dagozkion galderei erantzun behar die.

Lehen eta Bigarren zikloko ikasleei **letra-zopa** eta **gurutzegarama** bete beharko dituzte, hurrenez hurren. Hirugarren ziklokoek berriz, **kahoot.it** web orrira jo beharko dute eta bertan irakasleek emandako kodea sartu beharko dute Kultur Lehiaketako proba egiteko.

Ondoren izena eta ikastetxea jarri beharko dute kahoot erabiltzaile gisa aritzeko.

Erantzun-orria ikastetxean edota euskara zerbitzuan aurkeztu beharko da, beranduenez **abenduaren 10ean**.

Kategoria bakoitzeko eta ikastetxe bakoitzeko sari bat zozkatuko da galdera guztiak erantzun zuzena ematen dietenen artean.

Zozketa abenduaren 14an egingo da, eta egun horretatik aurrera irabazleek saria ikastetxean edota Enkarterriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan jaso ahal izango dute.

Pueden participar en el concurso el **alumnado de Enseñanza Primaria de Enkarterri**. Cada niño/a deberá responder a las preguntas que correspondan a su ciclo.

Los alumnos/as de primer y segundo ciclo deberán completar una **sopa de letras** y un **crucigrama**, respectivamente. El alumnado de tercer ciclo, por su parte, deberán acceder a la página web **kahoot.it**, donde deberán introducir el código facilitado por los/las profesores/as para realizar la prueba. Deberán utilizar su nombre y apellido y colegio como usuario/a del kahoot.

La hoja con las respuestas se debe presentar en el centro escolar o en el servicio de euskera para el **10 de diciembre**.

Se sorteará un premio por cada categoría y colegio entre el alumnado que haya contestado correctamente a todas las preguntas.

El sorteo se realizará el día **14 de diciembre** y las personas ganadoras podrán recoger su premio en el centro escolar o en el Servicio de Euskera de la Mancomunidad de Enkarterri.

ENKARTERRIKO MANKOMUNITATEKO EUSKARA ZERBITZUA - LA INMACULADA AUZOA 15
48850 ARANGUREN - ZALLA 94 667 1851 - euskera@enkarterri.eus - www.enkarterri.eus

GORDEXOLAKO UDALEKO · EUSKARA ZERBITZUA · MOLINAR PLAZA 1 · 48192 GORDEXOLA · 94 679 97 04
euskarazerbitzua@gordexola.eus · www.gordexola.eus



GORDEXOLAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GORDEXOLA



ENKARTERRIKO
MANKOMUNITATEA



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTUR LEHIAKETA

LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. MAILETAKO IKASLEENTZAT

Bilatu galderen erantzunak letra-zopan...

1. ETB3 telebista katean ematen dute eta abestiak, dantzak, esketxak, bideoklipak, buruhandi eta erraldoiak, eta eskulanak eta sorpresa ugari izaten ditu. Zelan deitzen da saioa?

2. Zein da Olentzeroren lanbidea?

3. "IRRIA" aldizkarian Pirritx Porrotx eta Marimototsekin batera ateratzen da eta esperimentu asko egiten ditu. Zein da?

4. Zein hitz falta zaio abestiari?
Euskaraz jolasten ikas dezagun euskaraz jolasten gau eta egun euskaraz jolasten lagun artean euskaraz jolasten gela eta _____.

5. Zeintzuk dira emakume itxura eta ahate-hankak dituzten izaki mitologikoak?


6. Zer dela eta zer da?
Baserrian jaioa
baserrian hazia
mozten duenari
bustitzen dio begia.

7. Zelan deitzen da ETBko Ene Kantak! saioan agertzen den asto rockzalea eta despistatu xamarra?

8. Pailazo mutua da eta bozina baten laguntzaz komunikatzen da. Zein da?

9. Don don kikilikon
saltsa pika _____
patinean korrika.

10. Zelan deitzen da Olentzerori laguntzen dion emakumea?



eta sari hauek irabazteko aukera izango duzu!!!



Izen-abizenak: _____


Ikastetxea: _____ Maila: _____

Herria: _____ Telefonoa: _____

KULTUR LEHIAKETA

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILETAKO IKASLEENTZAT

Jarri erantzunak gurutzegraman...



ZEHARRETARA

1. Zelan deitzen da "Goazen" telesailerako aktoreen bila dabilen talent-showa?
2. Zein da makil batzuez jotzen den euskal musika-tresna?
5. Nola deitzen da "Goazen" telebista-saioko ingeles irakasle berria?
6. Zein landare jartzen dute euskaldunek bere etxeko atean gaueko izakiengandik babesteko?
8. Osatu Euskaraldirako Pirritx eta Porrotxek prestatutako abestia:

Sustraietan tinko
adarretan brinko
ahoa bizi-bizi
_____ prest beti
tinko eta brinko euskara.

9. Marrazki bizidunetako atal bat eta familientzako lehiaketa bat batzen dituen ETB1eko saio baten izena osatu: _____ eta _____ Hau bai abentura!

eta sari potolo hau irabazteko aukera izango duzu!!!



GOITIK BEHERA

1. Aplikazio bat da. Zure jakin-mina pizten duten galde-erantzunak topatuko dituzu bertan, gai ugari buruzkoak izan daitezke. 2018an sortu zuten.
3. Zer ospatzen da abenduaren 3an?
4. Mendian berde zakuan beltza, sutan gorri. Zer da?
7. Zelan deitzen da musika talde bat osatu nahi duten lau gazteren gorabeherak kontatzen dituen ETB1eko saioa?

Izen-abizenak: _____

Ikastetxea: _____ Maila: _____

Herria: _____ Telefonoa: _____

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO

KULTUR LEHIAKETA

LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA 6. MAILETAKO IKASLEENTZAT

Hirugarren zizkloko ikasleek kahoot.it web orrira jo beharko dute eta bertan irakasleek emandako kodea sartu beharko dute Kultur Lehiaketako proba egiteko. Ondoren izena, **abizena eta ikastetxea** jarri beharko dute kahoot erabiltzaile gisa aritzeko.

Proba egiteko epea **abenduaren 10ean** amaituko da.

Kategoria bakoitzeko sari bat zozkatuko da galdera guztiei erantzun zuzena ematen dietenen artean.

Zozketa **abenduaren 14an** egingo da eta egun horretatik aurrera irabazleek saria **ikastetxean edota Enkarterriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan** jaso ahal izango dute.



El alumnado de tercer ciclo, deberá acceder a la página web **kahoot.it**, donde deberán introducir el código facilitado por los/las profesores/as para realizar la prueba. Deberán utilizar su **nombre y apellido y colegio** como usuario/a del kahoot.

El plazo para realizar la prueba finalizará el **10 de diciembre**.

Se sorteará un premio por cada categoría entre los/las que respondan correctamente a las preguntas.

El sorteo se realizará el día **14 de diciembre** y las personas ganadoras podrán recoger un premio en el centro escolar o en el Servicio de Euskera de la Mancomunidad de Enkarterri.

ENKARTERRIKO MANKOMUNITATEKO EUSKARA ZERBITZUA - LA INMACULADA AUZOA 15
48850 ARANGUREN - ZALLA 94 667 1851 - euskera@enkarterri.eus - www.enkarterri.eus

GORDEXOLAKO UDALEKO - EUSKARA ZERBITZUA - MOLINAR PLAZA 1- 48192 GORDEXOLA - 94 679 97 04
euskarazerbitzua@gordexola.eus - www.gordexola.eus



GORDEXOLAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GORDEXOLA



ENKARTERRIKO
MANKOMUNITATEA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO